

Bizkaiko Foru Aldundiaren \_\_/2017 FORU DEKRETU PROIEKTUA, \_\_\_\_\_ren \_\_ (e)koa. Honen bidez, aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko erregelamenduan.

Orain dela gutxi apirilaren 12ko 2/2017 Foru Araua onartu da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren alderdi batzuk aldatzen dituena, eta horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu tributuen kudeaketan, zergadunei segurtasun juridiko handiagoa bermatzeko.

Alderdi berritzaileenetako bat da sei hilabeteko iraungitze-epea ezarri dela autoliquidazio eta aitortpen bidez hasitako prozedurak amaitzeko. Halaber, behin-behineko autoliquidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura berri bat arautu da. Zerga Administrazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124 bis artikuluan ezarritako kasuetan hasi ahalko du prozedura hori, eta nahitaez hasi beharko du autoliquidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik bi hilabeteko epean, autoliquidazioaren emaitza dirua itzuli beharra izan denean.

PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2017, de de , por el que se introducen modificaciones en el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia.

La reciente aprobación de la Norma Foral 2/2017, de 12 de abril, de reforma parcial de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, ha introducido importantes modificaciones en el ámbito de la gestión tributaria con el fin de garantizar una mayor seguridad jurídica a las y los contribuyentes.

Uno de los aspectos más novedosos ha sido el establecimiento de un plazo de caducidad de seis meses para la terminación de los procedimientos iniciados mediante autoliquidación y declaración, así como la regulación de un nuevo procedimiento denominado procedimiento de revisión de autoliquidaciones y de liquidaciones provisionales, el cual la Administración tributaria podrá iniciar en los supuestos establecidos en el artículo 124 bis de la Norma Foral General Tributaria y que vendrá obligada a iniciar de forma obligatoria en el plazo de dos meses desde la caducidad del procedimiento iniciado mediante autoliquidación, en los supuestos en que la



Horrez gainera, aldaketak egin dira egiaztapen mugatuaren prozeduran, haren iraupenari dagokionez eta zergapekoaren jardura ekonomikoen etekina zehazteko kontuan hartzen diren osagai guztien berrikuspen orokorrean eskumenak mugatzeari dagokionez. Balioak egiaztatzekeo prozedura ere aldatu da, peritu-tasazio kontrajarriari dagokionez.

Foru dekretu honek hainbat aldaketa egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko erregelamenduan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean sartutako aldaketa eta berritasunen arabera egokitzekeo.

Autolikidazio eta aitopen bidez hasitako prozeduren iraungitzekeo dagokionez, 2. bis atala gehitu da IV. tituluko zerga-kudeaketako prozedurei buruzko II. kapituluan, behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura sartzeko.

Bestalde, Administrazioari egotzi ezin zaizkion

autoliquidación hubiera resultado a devolver.

Asimismo se han introducido modificaciones en el procedimiento de comprobación limitada en relación al plazo de duración del mismo y a la delimitación de competencias en la revisión general de los elementos que conforman la determinación de los rendimientos de actividades económicas de la persona obligada tributaria, o en el procedimiento de comprobación de valores en relación con la tasación pericial contradictoria.

El presente Decreto Foral introduce determinadas modificaciones en el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio, con el objeto el adaptarlo a las modificaciones y novedades operadas en la Norma Foral General Tributaria.

En lo que se refiere a la caducidad de los procedimientos iniciados por autoliquidación y declaración, se añade una nueva sección 2ª bis en el Capítulo II de procedimientos de gestión tributaria del Título IV para incorporar el procedimiento de revisión de autoliquidaciones y liquidaciones provisionales.

Por otra parte se establece un nuevo supuesto



arrazoiengatik beste luzapen kasu bat ezarri da: zergapekoak atzeratuta aurkezten dituenen tributua-araubidearen arabera erabili behar dituen liburuak eta gainerako erregistroak.

Halaber, zergen kudeaketari buruzko erregelamenduan sartu den beste berritasunetako bat da itzulketa kalkulatzeko ez direla kontuan hartuko aurreko likidazioaldietan aitortu diren jasanarazitako kuotak Zerga Administrazioari ordaindu ez bazaizkio, legez jasanarazi behar diren tributuen urteko autoliquidazioen kasuan, emaitza itzultzekoa izan bada. Hala egingo da geroago erregularizatzen badira ere.

Ilido berean, ordaintzeko autoliquidazioak arautzen dira, likidazioaren emaitza ordaindu ez den kasuetarako. Izan ere, autoliquidazio horietan, itzuli egingo da oker jasanarazitako kuota ordaintzeko dagoen autoliquidazioaren emaitza gainditzen duenean.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren

de dilación por causa no imputable a la Administración tributaria cuando se produce un retraso por parte del obligado tributario en la aportación de los libros y demás registros que tengan la obligación de llevar conforme a la normativa tributaria.

Adicionalmente, otra de las novedades que se incorpora en el Reglamento de gestión de los tributos, es que no se van a tener en cuenta para el cálculo de la devolución aquellas cuotas repercutidas declaradas en los periodos de liquidación anteriores que no hayan sido efectivamente ingresadas en la Administración tributaria, cuando se trate de autoliquidaciones anuales de tributos en los que exista obligación legal de repercutir y cuyo resultado hubiere sido a devolver, con independencia de su posterior regularización.

En este mismo sentido se regulan los supuestos de autoliquidaciones a ingresar en las que no se ha realizado el ingreso efectivo del resultado de la liquidación, en las cuales se procede a devolver la cuota indebidamente repercutida que exceda del resultado de la autoliquidación que esté pendiente de ingreso.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y



18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2017ko azaroaren XX(e)ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Aldatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena. Hauek dira egindako aldaketak:*

Bat. Berridatzi egin da 1. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de noviembre de 2017,

DISPONGO:

Artículo único. *Modificación del Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio, que queda modificado como sigue:*

Uno. Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 1, que queda redactado en los siguientes términos:



«3. Ikuskapen-jarduketak eta prozedurak 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudian ezarritako moduan arautuko dira. Berariazko araudirik ez badago, erregelamendu honetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira ordezeko moduan.»

Bi. Berridatzi egin da 6. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan xedatutakoarekin bat, informazio horren izaera isilpekoa izango da, eta, eskumenak gorabehera, kasuan kasuko prozeduran esku hartzen dutenei bakarrik laga edo jakinarazi ahalko zaie, eta Europar Batasuneko arautegian ezarritako kasuetan argitaratuko da.

Jarduketen emaitzak jarduketok egin dituen organoak eta Zerga Administrazioiko beste organo batzuk erabili ahal izango dituzte, prozeduraren xede den zergapekoaren edo beste batzuen inguruan eginkizunak egoki garatzeko.»

Hiru. Berridatzi egin da 21. artikuluko 2.

“3. Las actuaciones y procedimientos de Inspección se regirán por lo previsto en el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado mediante el Decreto Foral 5/2012, de 24 de enero. En defecto de regulación específica, se aplicarán supletoriamente las disposiciones previstas en el presente Reglamento.”

Dos. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 6, que queda redactado en los siguientes términos:

“2. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 94 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia dicha información tendrá carácter reservado y sólo podrá ser cedida o comunicada a quienes por razón de sus competencias intervengan en el procedimiento de que se trate, así como publicada en los supuestos establecidos por la normativa de la Unión Europea.

Los resultados de las actuaciones podrán ser utilizados en todo caso por el órgano que las haya realizado y por otros órganos de la Administración tributaria en orden al adecuado desempeño de sus funciones respecto del mismo o de otros obligados tributarios.”

Tres. Se da nueva redacción al apartado 2 del



zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«2. Hiri- edo landa-ondasun higiezinak hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak eta landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onetsi dituzten foru dekretuetan aipatutako esleitu beharreko gutxieneko balioa dutenean, interesdunek, lehentasunez, bide telematikoak erabilita kontsultatu ahal izango dute balio hori, Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren web orriaren bitartez. Horretarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagirian ageri den zenbaki finkoa eta eskatzailearen identifikazioa beharko dira.

Esleitu beharreko gutxieneko balioa urte naturalean egongo da indarrean.»

Lau. Berridatzi egin da 26. artikuluko 1. zenbakiko g) letra, eta honela geratu da idatzita:

«g) Ez izatea ordaindu gabe Ogasun Publikoaren kontrako delituaren ondorioz epai irmo baten bidez ezarritako isunik edo erantzukizun zibilik.»

artículo 21, que queda redactado en los siguientes términos:

“2. Cuando los bienes inmuebles urbanos o rústicos dispongan del valor mínimo atribuible al que se refiere los Decretos Forales por los que se aprueban las normas técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana y por el que se aprueban las normas técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica respectivamente, los interesados podrán consultarlo, preferentemente, por medios telemáticos a través de la página web del Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, debiendo disponer para ello del número fijo que consta en el recibo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y la identificación del solicitante.

El valor mínimo atribuible tendrá vigencia durante el año natural.”

Cuatro. Se da nueva redacción a la letra g) del apartado 1 del artículo 26, que queda redactada en los siguientes términos:

“ g) No tener pendientes de ingreso multas ni responsabilidades civiles derivadas de delito contra la Hacienda Pública declaradas por sentencia firme.”



Bost. Edukirik gabe geratu da 28. artikulua.

Cinco. Se deja sin contenido el artículo 28.

Sei. Berridatzi egin da 61. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

Seis. Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 61, que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Jakinarazpenak zergadunari jakinaraziko zaizkio, eta espedientean sartuko dira.»

“3. Las comunicaciones se notificarán al obligado y se incorporarán al expediente.”

Zazpi. Berridatzi egin da 62. artikuluko 3. zenbakiko g) letra, eta honela geratu da idatzita:

Siete. Se da nueva redacción a la letra g) del apartado 3 del artículo 62, que queda redactada en los siguientes términos:

«g) Sozietateen gaineko Zergan zerga-baterakuntzaren araubidean edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erakunde-taldearen araubidean tributatzen duen talde batean sartutako mendeko entitateekin egindako egiaztapen-jarduketan emaitza.»

“g) El resultado de las actuaciones de comprobación realizadas con entidades dependientes integradas en un grupo que tributen en régimen de consolidación fiscal del Impuesto sobre Sociedades o en el régimen del grupo de entidades del Impuesto sobre el Valor Añadido.”

Zortzi. Berridatzi egin dira 67. artikuluko b) eta c) letrak, eta honela geratu dira idatzita:

Ocho. Se da nueva redacción a las letras b) y c) del artículo 67, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 185. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, espedientea Fiskaltzari edo jurisdikzio eskudunari bidaltzen bazaio, bidaltzen den egunetik itzulitako espedientea jasotzen den egunera arte edo organo eskudunak prozedura jarraitzeko ebazpen judiziala ematen duen egunera arte.

“ b) Cuando de acuerdo con lo establecido en el artículo 185 de la Norma Foral General Tributaria, se remita el expediente al Ministerio Fiscal o a la jurisdicción competente, por el tiempo que transcurra desde dicha remisión hasta que, en su caso, se produzca la recepción del expediente devuelto o de la resolución judicial por el órgano



c) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikulua aipatutako nahitaezko irizpena eskatzen bazaio kide anitzeko organoari, Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzulpenen aurkako klausula garatzen dituen 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuko 14. artikulua adierazitako interesdunari egin beharreko jakinarazpena egiten den egunetik organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko egindako txostena jaso arte edo, bestela, txosten hori egiteko dagoen gehieneko denbora agortu arte.»

Bederatzi. i) letra gehitu zaio 68. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

«i) Zergapekoak atzeratuta aurkeztea zerga-arautegian xedatutakoaren arabera erabili behar dituen liburuak eta gainerako erregistroak, baita haietan egindako idazpen eta oharren oinarri diren agiri guztiak ere.

Luzapenaren iraupena hau izango da: errekerimenduari erantzuteko emandako epea amaitzen denetik eskatutakoa guztiz betetzen den egunera arte.»

competente para continuar el procedimiento.

c) Cuando se solicite al órgano colegiado el dictamen preceptivo a que se refiere el artículo 163 de la Norma Foral General Tributaria, por el tiempo que transcurra desde la notificación al interesado a que se refiere el artículo 14 del Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas, propuestas previas de tributación y cláusula anti-elusión, hasta la recepción del informe por el órgano competente para continuar el procedimiento o hasta el transcurso del plazo máximo para su emisión.”

Nueve. Se añade una nueva letra i) al artículo 68, que queda redactada en los siguientes términos:

“i) Los retrasos por parte del obligado tributario en la aportación de libros y demás registros que tengan la obligación de llevar conforme a lo dispuesto en la normativa tributaria, así como de la documentación que soporte los asientos y demás apuntes realizados en los mismos.

La dilación se computará desde el día siguiente al del fin del plazo concedido para la atención del requerimiento hasta el íntegro cumplimiento de lo solicitado.”





Hamar. Berridatzi egin da 69. artikuluko 5. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«5. Establezimendu iraunkorraren bitartez Espainian jarduten duten zergapeko ez-egoiliarren kasuan, Administrazioaren jarduketak zergapekoak izendatzen duen ordezkariarekin egingo dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 46. artikuluan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zergapeko ez-egoiliarrek ordaindu beharreko tributuen kasuan, jarduketak zergapeko ez-egoiliarrarekin edo hark xede honetarako izendatzen duen ordezkariarekin egin ahalko dira, edo, bestela, horrelakorik aurrez ikusten denean, erantzule solidarioarekin, jarduketak harekin zuzenean egin ahal direnean. Azken kasu horretan, likidazioak zuzenean egin ahalko zaizkio erantzule solidarioari, eta egindako likidaziotik edo exijitzen zaion erantzukizunetik eratortzen diren aurkaratzeko arrazoi guztiak erabili ahalko ditu.»

Hamaika. Berridatzi egin da 81. artikuluko 3.

Diez. Se da nueva redacción al apartado 5 del artículo 69, que queda redactado en los siguientes términos:

“5. En el caso de obligados tributarios no residentes que operen en España mediante establecimiento permanente, las actuaciones de la Administración se realizarán con el representante designado por el obligado tributario, de acuerdo con lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral General Tributaria y en el artículo 10 de la Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

En el caso de tributos que deban satisfacer los obligados tributarios no residentes que operen sin establecimiento permanente, las actuaciones podrán entenderse con el obligado tributario no residente, con el representante, en su caso, designado al efecto o, cuando así se prevea, con el responsable solidario con quien puedan realizarse las actuaciones directamente. En este último supuesto, las liquidaciones se podrán practicar directamente al responsable solidario, el cual podrá utilizar todos los motivos de impugnación que se deriven de la liquidación practicada o de la responsabilidad a él exigida.”

Once. Se da nueva redacción al apartado 3 y se



zenbakia eta 4. zenbakia gehitu da; honela geratu dira idatzita:

«3. Autoliquidazio bidez hasitako prozedura Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 121.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

4. Legearen aginduz jasanarazi behar diren tributuen urteko autoliquidazioetan, itzultzekoak direnean, itzulketa kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko emaitza ordaintzea izan duten aurreko autoliquidazioetan aitortu diren eta ordaindu ez diren jasanarazitako kuotak. Hala ere, ordainketa egin ondoren itzuli ahal izango dira.»

Hamabi. Berridatzi egin dira 83. artikuluko 1., 3. eta 4. zenbakiak eta 6. zenbakia gehitu da; honela geratu dira idatzita:

«1. Zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak egiteko prozedura – Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30. artikuluan daude ezarrita itzulketa horiek– zergapekoak eskatuta hasiko da; horretarako, kopuru bat itzuli beharra eragiten duen autoliquidazio bat aurkeztu beharko du, tributu

añade un nuevo apartado 4 al artículo 81, que quedan redactados en los siguientes términos:

“3. El procedimiento iniciado mediante autoliquidación terminará, una vez efectuada, en su caso, el examen al que se refiere el artículo 123 de la Norma Foral General Tributaria, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 121.3 de la citada Norma Foral.

4. En las autoliquidaciones anuales de tributos en los que exista obligación legal de repercusión con resultado a devolver no se tendrán en cuenta para el cálculo de la devolución aquellas cuotas repercutidas que hayan sido declaradas y no hayan sido efectivamente ingresadas en anteriores autoliquidaciones con resultado a ingresar, sin perjuicio de su devolución una vez que se haya procedido a su pago.”

Doce. Se da nueva redacción a los apartados 1, 3, 4 y se añade un nuevo apartado 6 al artículo 83, que quedan redactados en los siguientes términos:

“1. El procedimiento para la práctica de devoluciones derivadas de la normativa de cada tributo previstas en el artículo 30 de la Norma Foral General Tributaria se iniciará a instancia del obligado tributario mediante la presentación de una autoliquidación de la que resulte una cantidad a devolver, de acuerdo



bakoitza arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

Hala ere, itzulketa azken likidazio-aldiari dagokion autolikidazioa aurkezten denean eskatzen bada, aurreko likidazio-aldietako aitortpenetan jasotako Zerga Administrazioari ordaindu beharreko kopuruak kenduta, ez dira kontuan hartuko, aurreko aldi horietakoak izanda, benetan Zerga Administrazioari ordaindu ez zaizkion kopuruak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasuetan, zergapekoari ez zaio eskatuko aurreko aldietako autolikidazio horiei dagozkien kopuruak ordaintzeko urteko azken likidazio-aldiari dagokion itzulketa erabakitzeko kontuan hartu ez badira.»

«3. Egiaztapen mugatuaren prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat hastea eragiten duten akatsak, okerrak desadostasunak edo inguruabarrak daudenean –egiaztapen murriztuaren edo laburtuaren prozedurak ez dira sartzen–, itzulketa egiteko prozedura kasuan kasuko prozeduraren hasiera jakinarazten denean amaituko da. Kasu

con lo dispuesto en la normativa reguladora de cada tributo.

No obstante, en los supuestos en los que la devolución se solicite con ocasión de la presentación de la autoliquidación correspondiente al último período de liquidación, deduciéndose las cantidades declaradas a ingresar en la Administración tributaria correspondiente a los períodos de liquidación anteriores, no se tomarán en consideración las cantidades que, correspondiendo a esos períodos anteriores, no hayan sido efectivamente ingresadas en la Administración tributaria.

En los supuestos a los que se refiere el párrafo anterior, no se exigirá al obligado tributario el ingreso de las cantidades correspondientes a esas autoliquidaciones de los períodos anteriores en la medida en que no se hayan tomado en consideración para acordar la devolución procedente al último período de liquidación del año.”

“3. Cuando existan defectos, errores, discrepancias o circunstancias que originen el inicio de un procedimiento de comprobación limitada o de un procedimiento de inspección, con excepción de los procedimientos de comprobación restringida y comprobación reducida, el procedimiento de devolución terminará con la notificación de inicio del



bakoitzean eskumena duen organoak egingo du jakinarazpen hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraiki hasitako prozeduran, itzulketarik egin behar den eta zer zenbateko dagokion zehaztuko da, eta, hala badagokio, zergapekoaren tributuegoerari buruzko beste alderdi batzuk ere.

4. Egiatzapen mugatuaren prozedura batean edo ikuskapen prozedura batean –egiaztapen murriztuaren eta laburtuaren prozedurak ez dira sartzen–, Zerga Administrazioak itzulketa egitea erabakitzen duenean, prozedura horren bitartez itzulketa egiteko prozedurari amaiera eman bazaio, berandutza-interesak ordaindu beharko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Berandutza-interesak kalkulatzeko, ez dira aintzat hartuko erregelamendu honetako 68. artikuluan jasotako Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazioen ondoriozko luzapen-aldiak, prozedura horien barruan gertatzen badira.»

«6. Aurkeztutako autoliquidazioaren emaitza dirua itzuli beharra bada eta, autoliquidazioa aurkezteko epea amaitu denetik edo, epez kanpo aurkeztu bada, aurkeztu den egunetik, sei hilabete igaro ondoren, prozedura iraungi bada, Administrazioak behin-behineko

correspondiente procedimiento, que será efectuada por el órgano competente en cada caso.

En el procedimiento iniciado de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo anterior, se determinará la procedencia e importe de la devolución y, en su caso, otros aspectos de la situación tributaria del obligado.

4. Cuando la Administración tributaria acuerde la devolución en un procedimiento de comprobación limitada o de un procedimiento de inspección, con excepción de los procedimientos de comprobación restringida y de comprobación reducida, por el que se haya puesto fin al procedimiento de devolución, deberán satisfacerse los intereses de demora que procedan de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 30.2 de la Norma Foral General Tributaria. A efectos del cálculo de los intereses de demora no se computarán los periodos de dilación por causa no imputable a la Administración a que se refiere el artículo 68 de este Reglamento y que se produzcan en el curso de dichos procedimientos.”

“6. Cuando de la presentación de la autoliquidación resulte cantidad a devolver y se hubiera producido la caducidad del procedimiento una vez transcurrido el plazo de seis meses desde la finalización del plazo previsto para la presentación de la



autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura hasi beharko du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124 bis artikuluan eta erregelamendu honen 84 bis artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Bi hilabeteko epean hasi beharko du, autolikidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik zenbatuta.

Edonola ere, azkenean itzultzen den kopuruaren berandutza-interesak ordaindu beharko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.»

Hamahiru. Berridatzi egin dira 84. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak, eta honela geratu dira idatzita:

«2. Egiten den likidazioa behin-behinekoa izango da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 67. eta 70. artikuluetan aipatutako preskripzio-epeen edo iraungipen-epeen barruan, Zerga Administrazioak tributuaren likidazioa egiteko prozedura hau hasi ahal izango du berriro aitortpen bidez hasitako prozedura

autoliquidación o desde la fecha de presentación si se hubiera presentado fuera de plazo, la Administración vendrá obligada a iniciar un procedimiento de revisión de autoliquidaciones y liquidaciones provisionales conforme a lo dispuesto en el artículo 124 bis de la Norma Foral General Tributaria y al artículo 84 bis de este Reglamento, en el plazo de dos meses a contar desde que se hubiera producido la caducidad del procedimiento iniciado mediante autoliquidación.

En todo caso se mantendrá la obligación de satisfacer el interés de demora sobre la devolución que finalmente se pueda practicar, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 30 de la Norma Foral General Tributaria.”

Trece. Se da nueva redacción a los apartados 2 y 3 del artículo 84, que quedan redactados en los siguientes términos:

“2. La liquidación que se practique tendrá carácter provisional, conforme con lo previsto en el artículo 124.1 de la Norma Foral General Tributaria.

Dentro de los plazos de prescripción o caducidad a que se refieren los artículos 67 y 70 de la Norma Foral General Tributaria, la Administración tributaria podrá iniciar de nuevo este procedimiento para la liquidación del tributo cuando el procedimiento iniciado



iraungitzearen ondorioz amaitu bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122. artikuluko 3. zenbakiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Zergapekoak aurkeztutako aitorten bidez hasitako prozedura Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 122.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.»

Hamalau. 2. bis atala gehitu da, eta honela geratu da idatzita:

«2. BIS ATALA  
BEHIN-BEHINEKO AUTOLIKIDAZIOAK ETA  
LIKIDAZIOAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA

84 bis artikulua. *Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura.*

1. Zerga Administrazioak ofizioz hasi beharko du prozedura hau, autolikidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik bi hilabeteko epean, aurkeztutako autolikidazioaren emaitza dirua itzuli beharra denean.

mediante declaración hubiera terminado por caducidad de conformidad con lo dispuesto en la letra b) del artículo 122.3 de la Norma Foral General Tributaria.

3. El procedimiento iniciado mediante declaración presentada por el obligado tributario terminará, una vez efectuada, en su caso, el examen al que se refiere el artículo 123 de la Norma Foral General Tributaria, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 122.3 de la citada Norma Foral.”

Catorce. Se añade una nueva Sección 2ª bis, que queda redactada con el siguiente contenido:

“SECCIÓN 2ª BIS  
PROCEDIMIENTO DE REVISIÓN DE  
AUTOLIQUIDACIONES Y LIQUIDACIONES  
PROVISIONALES.

Artículo 84 bis. *Procedimiento de revisión de autoliquidaciones y liquidaciones provisionales.*

1. La Administración tributaria vendrá obligada a iniciar este procedimiento de oficio en el plazo de dos meses a contar desde que se hubiera producido la caducidad del procedimiento iniciado mediante autoliquidación, cuando de la presentación de la misma resulte cantidad a devolver.



2. Zerga Administrazioak kasu hauetan hasi ahal izango du prozedura hau ofizioz:

a) Aurkeztutako autoliquidazioaren emaitza kopuru bat ordaindu beharra denean edo emaitza hori zero denean.

b) Zergapekoari dokumentazioa aurkez dezala eskatzeko Zerga Administrazioak prozedura hastea erabakitzen duenean (autoliquidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitu aurretik), edo zergapekoaren tributuegoera erregulatu beharra egiaztatzen duten zantzuak daudenean

c) Zerga Administrazioak ikusten duenean behin-behineko likidazio baten bidez berrikusid den autoliquidazioan edo aitorpenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124.2. artikuluan jasotako inguruabarren bat gertatzen dela edo aurreko behin-behineko likidazioetan kontuan hartu ez diren beste batzuk.

3. Behin-behineko autoliquidazioak eta likidazioak berrikusteko prozesua Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 124.bis artikuluko 4. zenbakian xedatutakoari jarraiki.»

2. La Administración tributaria tendrá la potestad para iniciar de oficio este procedimiento en los siguientes supuestos:

a) Cuando de la presentación de la autoliquidación hubiera resultado cantidad a ingresar o de importe cero.

b) Cuando la Administración tributaria, antes de producirse la caducidad de un procedimiento iniciado mediante autoliquidación, acuerde su inicio en caso de que sea necesario requerir la aportación de documentación al obligado tributario o se disponga de indicios que acrediten la necesidad de regularizar la situación tributaria del mismo.

c) Cuando descubra que en la autoliquidación o declaración revisadas por medio de una liquidación provisional concurre alguna de las circunstancias a las que se refiere el artículo 124.2 de la Norma Foral General Tributaria u otras que no hubieran sido tenidas en cuenta en liquidaciones provisionales precedentes.

3. El procedimiento de revisión de autoliquidaciones y de liquidaciones provisionales terminará una vez realizado, en su caso, el examen al que se refiere el artículo 123 de la Norma Foral General Tributaria, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 124.bis de la citada Norma Foral.”



Hamabost. Berridatzi egin da 88. artikuluko 4. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«4. Tributua jasan duen pertsona edo erakundeari itzulketa egitea bidezkoa izango da baldin eta okerreko diru-sarrera legez beste pertsona edo erakunde batzuei jasanarazi beharreko tributuei badagokie eta honako betekizunak betetzen badira:

1. Tributua arautzen duen araudiak hala ezartzen duelako, zenbatekoa fakturaren edo ordezeko agiriaren bidez jasanarazita egotea.

2. Oker jasanarazitako kuotak ordainduta izatea.

Tributua jasan duen eragiketen hartzaileak jasanarazitako edo ordaindutako kuotengatik kenkarirako eskubidea duenean, oker jasanarazitako kuotak ordaindukotzat joko dira haiek jasanarazi zituenak behar bezala jaso baditu tributuen autoliquidazioan, autoliquidazio horren emaitza edozein dela ere.

Aurrekoa gorabehera, emaitza ordaindu

Quince. Se da nueva redacción al apartado 4 del artículo 88, que queda redactado del en los siguientes términos:

“4. Únicamente procederá la devolución a favor de la persona o entidad que haya soportado la repercusión cuando el ingreso indebido se refiera a tributos que deban ser legalmente repercutidos a otras personas o entidades, cuando concurren los siguientes requisitos:

1. Que la repercusión del importe del tributo se haya efectuado mediante factura o documento sustitutivo cuando así lo establezca la normativa reguladora del tributo.

2. Que las cuotas indebidamente repercutidas hayan sido ingresadas.

En los tributos en los que el destinatario de las operaciones que haya soportado la repercusión tenga derecho a la deducción de las cuotas soportadas o satisfechas, se entenderá que las cuotas indebidamente repercutidas han sido ingresadas cuando quien las repercutió las hubiese consignado debidamente en su autoliquidación del tributo, con independencia del resultado de dicha autoliquidación.

No obstante lo anterior, en los casos de





beharra izan duten autoliquidazioetan benetan ordaindu ez bada, oker jasanarazitako kuotatik ordaindu gabe dagoen autoliquidazioaren emaitza gainditzeko duen kopurua baino ez da itzuli beharko. Eta ezin izango zaio eskatu itzuli ez den oker jasanarazitako kuotarekin bat datorren zenbatekoan jasanarazi zuenari.

Itzulketa egiteko, Zerga Administrazioak tributua oker jasanarazi duen pertsona edo erakundearen zerga-egoera egiaztatu ahal izango du, eta egiaztapen horren emaitzaren arabera hartuko du erabakia.

3. Oker jasanarazi diren eta itzultzeko eskatzen diren kuotak Zerga Administrazioak haiek jasan zituenari edo hirugarren bati itzuli gabe izatea.

4. Tributua jasan duen zergapekoak jasanarazitako kuotak itzultzeko eskubiderik ez izatea.

Kenkarirako eskubidea partziala denean, kengarria izan ez den zenbatekoa baino ez da itzuliko. Horretarako, zergapekoak ez du izango jasanarazitako kuoten kenkarirako eskubidea egiaztapen edo ikuskapen prozedura batean adierazten denean kuota horien kenkaria ezin zela egin, oker jasanarazi direlako, eta

autoliquidaciones a ingresar sin ingreso efectivo del resultado de la autoliquidación, sólo procederá devolver la cuota indebidamente repercutida que exceda del resultado de la autoliquidación que esté pendiente de ingreso, el cual no resultará exigible a quien repercutió en el importe concurrente con la cuota indebidamente repercutida que no ha sido objeto de devolución.

La Administración tributaria condicionará la devolución al resultado de la comprobación que, en su caso, realice de la situación tributaria de la persona o entidad que repercuta indebidamente el tributo.

3. Que las cuotas indebidamente repercutidas y cuya devolución se solicita no hayan sido devueltas por la Administración tributaria a quien se repercutieron o a un tercero.

4. Que el obligado tributario que haya soportado la repercusión no tuviese derecho a la deducción de las cuotas soportadas.

En el caso de que el derecho a la deducción fuera parcial, la devolución se limitará al importe que no hubiese resultado deducible. A estos efectos se entenderá que el obligado tributario no tiene derecho a la deducción de las cuotas soportadas, cuando en un procedimiento de comprobación o inspección



prozedurari amaiera eman dion egintza irmoa bihurtu denean.»

Hamasei. Berridatzi egin da 96. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Prozedura honetan, Administrazioaren esku dauden datuak, zergapekoek beren aitortpenetan emandakoak eta aurkezten diren frogagiritan datozenak edo aurkezteko eskatzen direnetan ageri direnak aztertu ahalko ditu Zerga Administrazioak. Halaber, ebaluazio hori egiteko behar den informazioa eskatu ahal izango dio zergapekoari edo hirugarren batzuei.

Horrez gainera, ebaluazioaren xede diren ondasun eta eskubideen azterketa fisikoa eta dokumentala egin ahal izango du Administrazioak. Horretarako, organo eskudunek 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudiko 6. artikuluan ezarritako eskumenak izango dituzte.»

Hamazazpi. Berridatzi egin da 98. artikuluko 1. zenbakiko azken paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

se declare que no procede la deducción de dichas cuotas por haber sido indebidamente repercutidas y el acto que hubiera puesto fin a dicho procedimiento hubiera adquirido firmeza.”

Dieciseis. Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 96, que queda redactado en los siguientes términos:

“1. En este procedimiento la Administración tributaria podrá proceder al examen de los datos en poder de la Administración, de los consignados por los obligados tributarios en sus declaraciones y de los justificantes presentados o que se requieran al efecto, así como requerir al obligado tributario o a terceros la información necesaria para efectuar la valoración.

Asimismo, la Administración podrá efectuar el examen físico y documental de los bienes y derechos objeto de valoración. A estos efectos, los órganos competentes tendrán las facultades previstas en el artículo 6 del Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado mediante Decreto Foral 5/2012, de 24 de enero.”

Diecisiete. Se da nueva redacción al último párrafo del apartado 1 del artículo 98, que queda redactado en los siguientes términos:



«Prozedura ebazteko gehieneko epea urte bat izango da. Administrazioari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik ebazpen espresurik jakinarazi ez bada ebazteko dagoen epean, zergapekoak aitortutako balioa nagusituko da.»

Hamazortzi. Berridatzi egin dira 99. artikuluko a) eta b) letrak, eta honela geratu dira idatzita:

«a) Zergapekoak aurkeztutako autoliquidazio, aitorten edo eskabideetan edo behin-behineko autoliquidazioak eta likidazioak berrikusteko prozeduran eta Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazioetan, edukian akatsak ikusten direnean edo aitortutako datuen edo aurkeztutako frogagrietan datozen datuen eta Zerga Administrazioaren esku dauden froga elementuen artean desadostasunak daudenean.

b) Zergapekoak aurkeztutako autoliquidazio, aitorten edo eskabideetan zerga-betebeharraren elementu guztiak edo elementuren bat egiaztatu behar direnean, edo zergapekoaren jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko kontuan hartzen diren osagai guztien berrikuspen orokor bat egin nahi denean, ikuskapen prozedura bat erabiltzen denean izan

“El plazo máximo para la resolución del procedimiento será de un año. Transcurrido el plazo para resolver sin que se haya notificado resolución expresa por causas imputables a la Administración, prevalecerá el valor declarado por el obligado tributario.”

Dieciocho. Se da nueva redacción a las letras a) y b) del artículo 99, que quedan redactadas en los siguientes términos:

“a) Cuando en relación con las autoliquidaciones, declaraciones o solicitudes presentadas por el obligado tributario, así como en las liquidaciones provisionales practicadas por la Administración tributaria en el procedimiento de revisión de autoliquidaciones y liquidaciones provisionales, se adviertan errores en su contenido o discrepancias entre los datos declarados o justificantes aportados y los elementos de prueba que obren en poder de la Administración tributaria.

b) Cuando en relación con las autoliquidaciones, declaraciones, o solicitudes presentadas por el obligado tributario proceda comprobar todos o algún elemento de la obligación tributaria, o vaya a realizar una revisión general de la totalidad de los elementos que conforman la determinación de los rendimientos de actividades



ezik.»

Hemeretzi. Berridatzi egin da 101. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«Egiaztapen mugatuaren prozedura Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 132.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira amaituko da.»

Hogei. Xedapen gehigarri bakarra lehenengo xedapen gehigarria izango da orain, eta bigarren xedapen gehigarria erantsi da; hau da haren edukia:

«Bigarren xedapen gehigarria. Ogasun publikoaren aurkako delituak egin direlako zantzuak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudiaren 49. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da ogasun publikoaren aurkako delituak egin direlako zantzuak erregelamendu honetan araututako zerga-kudeaketako prozeduretako bat izapidetzean agertu badira, betiere beharrezkoak diren egokitzapenak eginda prozeduraren arabera.»

económicas del obligado tributario, salvo que se utilice un procedimiento de inspección.”

Diecinueve. Se da nueva redacción al artículo 101, que queda redactado en los siguientes términos:

“ El procedimiento de comprobación limitada terminará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 132.1 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.”

Veinte. La disposición adicional única pasa a ser la disposición adicional primera, y se añade una nueva disposición adicional segunda, con el siguiente contenido:

“Disposición adicional segunda. Indicios sobre la comisión de delitos contra la Hacienda Pública.

Lo dispuesto en los artículos 49 y siguientes del Reglamento de inspección tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 5/2012, de 24 de enero, resultarán de aplicación, con las debidas adecuaciones en función del procedimiento, en los supuestos en los que los indicios sobre la comisión de delitos contra la Hacienda Pública se hayan puesto de manifiesto en el curso de la tramitación de alguno de los procedimientos de gestión tributaria regulados en el presente



Lehenengo azken xedapena *Arauk emateko gaikuntza*.

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarreen jartzea*.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarreen.

Bilbon, 2017ko .....(a)ren ....(e)(a)n

Reglamento.”

Disposición final primera. *Habilitación normativa*.

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*.

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

En Bilbao, a de de 2017.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua  
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia  
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

